



## AURKIBIDEA / INDICE

LABURPENA .....	1
RESUMEN .....	1
0. SARRERA .....	3
0. INTRODUCCIÓN .....	3
1. AURREKONTU ALDAKETAK KAPITULUKA .....	7
1. ANÁLISIS DE LAS MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS POR CAPÍTULOS .....	7
2. AURREKONTU ALDAKETAK SAILEZ SAIL .....	31
2. ANÁLISIS DE LAS MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS POR DEPARTAMENTOS .....	31
3. KREDITU OROKORRAREN PROGRAMAKO KREDITU TRANSFERENTZIAK .....	44
3. ANÁLISIS DE LAS TRANSFERENCIAS DE CRÉDITOS DEL PROGRAMA DEL CRÉDITO GLOBAL.....	44
4. ZUZENKETA TEKNIKOEN ONDORIOZKO KREDITU TRANSFERENTZIAK .....	48
4. ANÁLISIS DE LAS TRANSFERENCIAS DE CRÉDITO DERIVADAS DE CORRECCIONES TÉCNICAS .....	48
5. KONPROMISO KREDITUEN ALDAKETAK .....	50
5. ANÁLISIS DE LAS MODIFICACIONES DE CRÉDITOS DE COMPROMISO .....	50
6. ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN AURREKONTU ALDAKETAK .....	55
6. ANÁLISIS DE LAS MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS DE LOS ORGANISMOS AUTÓNOMOS DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE ALAVA .....	55
ONDORIOA .....	59
CONCLUSIÓN .....	59



## 2009KO AURREKONTU ALDAKETEN AZTERKETA

## ANÁLISIS MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS 2009

### LABURPENA

### RESUMEN

Aurrekontu aldaketak oso arrazoi ezberdinengatik gertatu dira. Hona hemen horietako batzuk:

- 1) Kreditu orokorra aurrekontua berriz sailkatzeko tresna moduan erabili da.
  - a) 2009. urtean, Kreditu Orokorraren gastu programatik beste programa batzuetara transferitutako kredituen zenbatekoa 4.266.620,06 euro izan da; 2008an, berriz, 6.892.259,64 euro izan zen (ia %40ean gutxituz).
  - a) 2009an, edozein programatik Kreditu Orokorraren gastu programara egindako kreditu transferentzien zenbatekoa 58.884.039,97 euro izan da; 2008an, berriz, 64.056.905,12 euro izan zen.
- 2) Erakundeen Arteko Konpromisoei dagozkien partidetan doikuntzak egin dira, batez ere EA Eren aldeko finantza ekarpenei eta Udalak Finantzatzeko Foru Funtzari dagozkienetan.
  - a) 2009. urtean "EA Erentzako Ekarpene Orokorra" partidatik 15.567.779,75 € kendu dira transferentzia baten bidez. Ondorioz azken aurrekontua 1.455.650.200,25 €koa izan da. 2008. urtean 22.792.403,19 €ko kreditu transferentzia egin zen. Ondorioz azken aurrekontua 1.474.004.106,81 €koa izan zen.
  - a) 2008ko kupo dela-eta Estatuari eman beharreko partida likidatzean, 67.819.178,18 euroko diru sarrera izan da.
  - a) Estatuarentzako 2009ko Kupoaren partidatik 1.334.700,00 € gutxitu dira kreditu

El volumen de modificaciones presupuestarias tiene orígenes muy diversos, entre los cuales se puede reseñar:

- 1) La utilización del Crédito Global como instrumento de reclasificación presupuestaria.
  - a) En el 2009 las transferencias de créditos del Programa de Gastos del Crédito Global a cualquier otro programa ha sido de la cuantía de 4.266.620,06 € mientras que en el 2008 ha sido de 6.892.259,64 € (disminuyendo casi un 40%).
  - a) En el 2009 el importe de las transferencias de créditos de cualquier Programa al Programa de Gastos del Crédito Global asciende a la cuantía de 58.884.039,97 € mientras que en el 2008 ha sido de 64.056.905,12 €
- 2) Ajustes en partidas de los Compromisos Institucionales, sobre todo Aportaciones Financieras a la CAPV y el Fondo Foral de Financiación Municipal.
  - a) En el 2009 la partida "Aportación General a la CAPV" disminuye mediante transferencia por importe de 15.567.779,75 € resultando un presupuesto final de 1.455.650.200,25 € En el 2008 se realizó una transferencia de crédito por 22.792.403,19 € llegando a un presupuesto final de 1.474.004.106,81 €
  - a) La partida de Liquidación Cupo al Estado para el 2008 ha supuesto un ingreso de 67.819.178,18 €
  - a) La partida Cupo al Estado 2009, disminuye mediante transferencia de crédito por



transferentzia baten bidez; emaitzako saldoa: 239.929.810,00 €	1.334.700,00 € con un saldo resultante de 239.929.810,00 €
a 2009ean, “Obra eta Zerbitzuen Foru Plana” partidari 498.618,82 euro gehitu zaizkio kreditu gaikuntza baten bidez eta 41.155.611,45 €kendu zaizkio transferentzia batengatik. Ondorioz, azken aurrekontua 10.322.900,40 euro izan da (2008ko ekitaldian 9.401.103,89 euro izan zen).	a En el 2009 la partida “Plan Foral de Obras y Servicios” aumenta debido a una habilitación de crédito por importe de 498.618,82 €, disminuyendo vía transferencia en 41.155.611,45 €, resultando un presupuesto final de 10.322.900,40 €, frente a los 9.401.103,89 del ejercicio 2008.
3) Aldaketa teknikoak egin dira kopuruak kontabilitatean behar bezala egozteko. 2009. urtean zenbatekoak igoera nabarmena izan du 2008koaren aldean. 2009ko zenbatekoa 12.152.029,82 € izan da eta 2008an 3.172.057,12 € izan zen.	3) Modificaciones técnicas para una adecuada imputación contable. En el 2009 su cuantía se ha aumentado respecto al año 2008. El importe de 2009 ha sido 12.152.029,82 €, mientras que en 2008 fue de 3.172.057,12 €



## 0. SARRERA

Hauexek dira Arabako Foru Aldundiaren 2009ko ekitaldiko Aurrekontuaren osagaiak:

- a) Gastuen Orriaren zenbatekoa 2.497.505.353,44 euro da.
- b) Sarrereren Orriaren zenbatekoa 2.497.505.353,44 euro da.

Aurrekontu hau hainbat aldiz aldatu da ekitaldian zehar, eta ondorioz AZKEN AURREKONTUA honela geratu da: sarreretan **2.502.648.319,24 €** eta gastuetan **2.501.183.972,98 €**

## 0. INTRODUCCIÓN

El Presupuesto de la Diputación Foral de Alava para el ejercicio 2009 ascendio a:

- a) El Estado de Gastos, cuyo importe asciende a la cantidad de 2.497.505.353,44 €
- b) El Estado de Ingresos por una cantidad de 2.497.505.353,44 €

Este Presupuesto a lo largo del ejercicio ha experimentado una serie de modificaciones presupuestarias, llegando a un PRESUPUESTO FINAL de **2.502.648.319,24 €** de ingresos y **2.501.183.972,98 €** de gastos.

(Eurotan) (En €)

<b>KREDITU BAIMENDUAK / CRÉDITOS AUTORIZADOS 08.1</b>			
<b>SARRERAK / INGRESOS</b>		<b>GASTUAK / GASTOS</b>	
Hasierako aurrekontua Presupuesto Inicial	2.497.505.353,44	Hasierako aurrekontua Presupuesto Inicial	2.497.505.353,44
Gaikuntzak Habilitaciones	2.526.468,08	Kreditu Gehigarria Crédito Adicional	2.094.162,62
Baliogabetzeagatiko baja Baja por Anulación	-2.049.482,92	Baliogabetzeagatiko baja Baja por Anulación	-1.617.177,46
Transferentziak Gehikuntzak Transferencias Aumentos	3.026.472,16	Transferentziak Gehikuntzak Transferencias Aumentos	121.226.563,49
Transferentziak Gutxikuntzak Transferencias Disminuciones	-3.026.472,16	Transferentziak Txikitzeak Transferencias Disminuciones	- 121.226.563,49
Erantsiak Incorporados	1.464.346,26	Erantsiak Incorporados	0,00
Diru sarrerei lotutako gastuak Gastos con Financiación Afectada	3.201.634,38	Diru sarrerei lotutako gastuak Gastos con Financiación Afectada	3.201.634,38
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>2.502.648.319,24</b>	<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>2.501.183.972,98</b>



Hona **ERANTSI** diren kopuruak xehekatuta:

Por lo que respecta a la **INCORPORACIÓN**, ésta ha sido la siguiente:

	€
- Gastuen eransketa / Incorporación de Gastos .....	0,00
- Sarreren eransketa / Incorporación de Ingresos .....	1.464.346,26
	<b>- 1.464.346,26</b>
- Gastuak baliogabetzeagatiko baja / Baja Anulación Gastos .....	1.617.177,46
- Sarrerak baliogabetzeagatiko baja / Baja Anulación Ingresos .....	2.049.482,92
	<b>- 432.305,46</b>
	<b>Guztira / Total: - 1.032.040,80</b>

Ondoren **GAIKUNTZAK, KREDITU GEHIGARRIAK** eta **DIRU SARREREI LOTUTAKO GASTUAK** xehekatuko dira:

Por lo que respecta a las **HABILITACIONES Y CRÉDITOS ADICIONALES Y GASTOS CON FINANCIACIÓN AFECTADA** éstas han sido:

	€
- DLG sarrerak / G.F.A. Ingresos .....	3.201.634,38
- DLG gastuak / G.F.A. Gastos .....	3.201.634,38
	<b>0,00</b>
- Sarreren gaikuntzak / Habilitaciones Ingresos .....	2.526.468,08
- Kreditu gehigarria / Crédito Adicional .....	2.094.162,62
	<b>432.305,46</b>
	<b>Guztira / Total: ..... 432.305,46</b>
	<b>SALDOA / SALDO: ..... - 599.735,34</b>

Sarreren transferentzien guztirako zenbatekoa 3.026.472,16 €izan da, kopuru osoa sarreren zuzenketa teknikoak izanda.

Las Transferencias de Ingresos ascienden a 3.026.472,16 € correspondiendo la totalidad del mismo a correcciones técnicas de ingresos.

**GASTUEN TRANSFERENTZIAK** 121.226.563,49 euro izan dira guztira; horietatik, 109.074.533,67 euro kreditu transferentziei dagozkie eta 12.152.029,82 euro zuzenketa teknikoiei.

Las **TRANSFERENCIAS DE GASTOS** ascienden a 121.226.563,49 €, de las cuales 109.074.533,67 € corresponden a Transferencias de Crédito como tal, y 12.152.029,82 €a Correcciones Técnicas.

Hona hemen kreditu transferentzien espedienteen banaketa:

Los expedientes de Transferencias de Crédito tienen la siguiente distribución:



(Eurotan) / (En €)

	2008. urtea Año 2008	2009. urtea Año 2009	Aldea Diferencia
53/92 Foru Arauko 57. artikuluari lotutako transferentziak. Erabakiak Transferencias Sujetas al Art. 57 N.F. 53/92. Acuerdos	89.423.228,66	74.659.273,09	-14.763.955,57
53/92 Foru Arauko 57. artikuluari lotutako transferentziak. Foru Agindua Transferencias Sujetas al Art. 57 Norma Foral 53/92. Orden Foral	6.028.076,34	7.134.467,35	1.106.391,01
Erakunde konpromisoak: likidazioa Liquidación Compromisos Institucionales	22.792.403,19	16.902.479,75	-5.889.923,44
I. kapituluak dituen partiden arteko transferentziak Transferencias entre distintas partidas del Capítulo I	8.574.653,41	6.111.693,42	-2.462.959,99
Kreditu transferentziak, kreditu orokorra gastu programatik beste programa batzuetara egindakoak Transferencias de Créditos del programa de gastos Crédito Global a otros programas	6.892.259,64	4.266.620,06	-2.625.639,58
<b>Guztira / Total</b>	<b>133.710.621,24</b>	<b>109.074.533,67</b>	<b>-24.636.087,57</b>

53/92 Foru Arauko 57. artikuluari (foru erabakiak) lotutako transferentziak gutxitu egin dira, 14.763.955,57 euro gutxiago baitituzte, eta Sailak berak onetsi dituen kreditu transferentziak, Foru Arauko 57. artikuluari buruzkoak direnak (foru aginduak), igo egin dira, 1.106.391,01 euro gehiago baitituzte.

1. kapituluaren barruan egindako transferentziak 2.462.959,99 euro gutxitu dira; Kreditu Orokorraren programa erabiltzen dutenak 2.625.639,58 euro gutxitu dira.

Erakundeen konpromisoei dagozkien transferentziek behera egin dute 5.889.923,44 euro.

Jarraian, honakoak aztertuko ditugu:

1. Aurrekontu aldaketak kapituluka.
2. Aurrekontu aldaketak sailez sail.
3. Kreditu Orokorraren Programari dagozkion kreditu transferentziak.
4. Zuzenketa teknikoen ondoriozko kreditu

Se observa que las transferencias sujetas al Artículo 57 de la Norma Foral 53/92 (Acuerdos Forales) disminuyen en 14.763.955,57 €y las transferencias de crédito aprobadas por el propio departamento referentes al art. 57 de la misma Norma Foral (Ordenes Forales) aumentan en 1.106.391,01 €

Las transferencias entre el propio Capítulo 1 disminuyen en 2.462.959,99 €y las que utilizan el programa del Crédito Global disminuyen en 2.625.639,58 €

Las transferencias correspondientes a los Compromisos Institucionales disminuyen en 5.889.923,44 €

A continuación se procede a hacer los siguientes análisis:

1. Análisis de las Modificaciones Presupuestarias por Capítulos.
2. Análisis de las Modificaciones Presupuestarias por Departamentos.
3. Análisis de las Transferencias de Crédito del Programa del Crédito Global.
4. Análisis de las Transferencias de Crédito



transferentziak.

5. Konpromiso kredituen aldaketak.
6. Arabako Foru Aldundiaren erakunde autonomiadunek egindako aurrekontu aldaketak.

derivadas de Correcciones Técnicas.

5. Análisis de las Modificaciones de Créditos de Compromiso.
6. Análisis de las Modificaciones Presupuestarias de los Organismos Autónomos de la Diputación Foral de Alava.



## 1. AURREKONTU ALDAKETAK KAPITULUKA

## 1. ANÁLISIS DE LAS MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS POR CAPÍTULOS

Transferentziak honela banatuko genituzke kapituluka:

El Total de Transferencias por Capítulos se distribuye de la siguiente manera:

2009. urtea/ Año 2009			(Eurotan) / (En €)
KAPITULUAK CAPÍTULOS	GEHIKUNTZAK AUMENTOS	GUTXIKUNTZAK DISMINUCIÓN	GARBIA NETO
I	6.567.340,92	6.111.693,42	455.647,50
II	13.800.905,64	5.762.685,42	8.038.220,22
III	3.763.851,90	3.948.488,68	- 184.636,78
IV	17.143.231,87	19.564.198,70	- 2.420.966,83
ERAG. ARRUNTAK GUZT. TOTAL OPERAC. CORRIENTES	<b>41.275.330,33</b>	<b>35.387.066,22</b>	<b>5.888.264,11</b>
VI	69.585.779,87	23.318.392,44	46.267.387,43
VII	9.483.779,66	62.305.414,23	- 52.821.634,57
VIII	881.673,63	215.690,60	665.983,03
IX			
KAPITAL ERAG. GUZTIRA TOTAL OPERAC. DE CAPITAL	<b>79.951.233,16</b>	<b>85.839.497,27</b>	<b>- 5.888.264,11</b>
GUZTIRA/ TOTAL	<b>121.226.563,49</b>	<b>121.226.563,49</b>	<b>0,00</b>

2008. urtea/ Año 2008			(Eurotan) / (En €)
KAPITULUAK CAPÍTULOS	GEHIKUNTZAK AUMENTOS	GUTXIKUNTZAK DISMINUCIÓN	GARBIA NETO
I	9.737.927,59	8.574.653,41	1.163.274,18
II	8.896.215,84	4.938.834,23	3.957.381,61
III	1.579.691,38	0,00	1.579.691,38
IV	22.610.135,41	28.473.040,75	- 5.862.905,34
ERAG. ARRUNTAK GUZT. TOTAL OPERAC. CORRIENTES	<b>42.823.970,22</b>	<b>41.986.528,39</b>	<b>837.441,83</b>
VI	79.451.111,37	28.527.383,60	50.923.727,77
VII	14.309.997,42	66.341.825,13	- 52.031.827,71
VIII	297.599,35	26.941,24	270.441,83
IX	-	-	-
KAPITAL ERAG. GUZTIRA TOTAL OPERAC. DE CAPITAL	<b>94.058.708,14</b>	<b>94.896.149,97</b>	<b>- 837.441,83</b>
GUZTIRA/ TOTAL	<b>136.882.678,36</b>	<b>136.882.678,36</b>	<b>0,00</b>

2009. urtean transferentzien guztirako zenbatekoa 2008koa baino 15.656.114,87 € gutxiago izan da.

El importe Total de transferencias en 2009 ha sido inferior respecto al 2008 en 15.656.114,87 € el



Funtsak kapital eragiketetatik eragiketa arruntetara pasatu dira.

Eragiketa arruntei dagokienez, I eta II kapituluak gehitu dira eta III eta IV. kapituluak 184.636,78 eta 2.420.966,83 €gutxiago eduki ditu.

6. kapituluan 46.267.387,43 €gehitu dira eta 7. kapituluan 52.821.634,57 €gutxitu.

Hona transferentziak, zuzenketa teknikoak izan ezik:

trasvase de fondos ha sido de operaciones de capital a corriente.

En cuanto a las operaciones corrientes, se han incrementado los Capítulos I y II, disminuyendo los Capítulos III y IV en 184.636,78 €y 2.420.966,83 € respectivamente.

Se observa un incremento del Capítulo 6 en 46.267.387,43 € disminuyendo el Capítulo 7 en 52.821.634,57 €

Las transferencias excluyendo las correcciones técnicas han sido:

### 2009. urtea / Año 2009

(Eurotan) / (En €)

KAPITULUAK CAPÍTULOS	GEHIKUNTZAK AUMENTOS	GUTXIKUNTZAK DISMINUCIÓN	GARBIA NETO
I	6.567.340,92	6.111.693,42	455.647,50
II	6.413.892,38	948.584,86	5.465.307,52
III	3.700.000,00	3.884.636,78	-184.636,78
IV	16.804.229,72	19.184.412,14	-2.380.182,42
<b>ERAG. ARRUNTAK GUZT. TOTAL OPERAC. CORRIENTES</b>	<b>33.485.463,02</b>	<b>30.129.327,20</b>	<b>3.356.135,82</b>
VI	67.360.693,52	16.843.177,80	50.517.515,72
VII	7.354.703,50	61.894.338,07	-54.539.634,57
VIII	873.673,63	207.690,6	665.983,03
IX			
<b>KAPITAL ERAG. GUZTIRA TOTAL OPERAC. DE CAPITAL</b>	<b>75.589.070,65</b>	<b>78.945.206,47</b>	<b>-3.356.135,82</b>
<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>109.074.533,67</b>	<b>109.074.533,67</b>	<b>0,00</b>

### 2008. urtea / Año 2008

(Eurotan) / (En €)

KAPITULUAK CAPÍTULOS	GEHIKUNTZAK AUMENTOS	GUTXIKUNTZAK DISMINUCIÓN	GARBIA NETO
I	9.737.927,59	8.574.653,41	1.163.274,18
II	8.766.325,45	4.270.193,84	4.496.131,61
III	1.579.691,38	0,00	1.579.691,38
IV	21.355.322,37	27.731.977,71	- 6.376.655,34
<b>ERAG. ARRUNTAK GUZT. TOTAL OPERAC. CORRIENTES</b>	<b>41.439.266,79</b>	<b>40.576.824,96</b>	<b>862.441,83</b>
VI	77.763.757,68	26.765.029,91	50.998.727,77
VII	14.209.997,42	66.341.825,13	- 52.131.827,71
VIII	297.599,35	26.941,24	270.658,11
IX	-	-	-
<b>KAPITAL ERAG. GUZTIRA TOTAL OPERAC. DE CAPITAL</b>	<b>92.271.354,45</b>	<b>93.133.796,28</b>	<b>- 862.441,83</b>



<b>GUZTIRA / TOTAL</b>	<b>133.710.621,24</b>	<b>133.710.621,24</b>	<b>0,00</b>
------------------------	-----------------------	-----------------------	-------------

Transferentzietatik zuzenketa teknikoak kenduz gero, aurrekontuko aldaketetan 24.636.087,57 euroko gutxikuntza izan da, eta kapital eragiketetatik eragiketa arruntetara pasatu diren funtsen zenbatekoak 2.493.693,99 euroko gorakada izan du.

2009. urtean transferentzien eraginez kapital transferentzietarako kredituak gutxitu dira (54.539.634,57 €), baita ere transferentzia arruntetarako kredituak (2.380.182,42 €) eta finantza gastuak (184.636,78 €).

Beste alde batetik, gainerako kapituluetan gehikuntza gertatu da: langileria gastuak (455.647,50 €), gastu arruntak (5.465.307,52 €), finantza aktiboak (665.983,03 €) eta batez ere inbertsio errealak (50.517.515,72 €).

Hartara, kapital eragiketen funtsetatik 3.356.135,82 euro pasatu dira eragiketa arruntetara.

Sail guztiek gastua egin baino lehen eskatu dituzte kreditu transferentziak, horrela bermatzen baita gastua egiteko behar adina kreditu izango dela.

Transferentziek eragindako aldaketek ez dute Lurralde Historikoko Aurrekontuari dagokion guttizko zenbatekoaren % 5 gainditu, Kreditu Orokorretik egindako transferentziak kontuan hartu gabe. Ildo beretik, banako transferentzia batek berak ere ez du goian aipatutako kopuruaren % 1 gainditu. Hori guztia, Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko Foru Arauko 57.8 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Zuzenketa teknikoetarako kreditu transferentziak:

Si excluimos en las transferencias las correcciones técnicas, el decremento de modificaciones presupuestarias ha sido de 24.636.087,57 € y el trasvase de fondos de operaciones de capital a operaciones corrientes ha aumentado en 2.493.693,99 €

En el año 2009 se observa que, como consecuencia de las Transferencias, disminuyen los créditos para Transferencias de Capital (54.539.634,57 €), Transferencias Corrientes (2.380.182,42 €) y Gastos Financieros (184.636,78 €).

Por otro lado, se incrementan el resto de Capítulos: gastos de personal (455.647,50 €), gastos corrientes (5.465.307,52 €), Activos Financieros (665.983,03 €), destacando Inversiones Reales (50.517.515,72 €).

Existiendo de este modo un trasvase de fondos de operaciones de capital a operaciones corrientes de 3.356.135,82 €

Las Transferencias de Créditos son solicitadas por los diferentes Departamentos con anterioridad a la ejecución del gasto, de manera que dispongan de Créditos suficientes para llevarlos a cabo.

Las modificaciones realizadas por transferencias no han superado el 5% del importe Total del Presupuesto del Territorio Histórico, excluidas las transferencias que tengan su origen en el Crédito Global. Asimismo ninguna transferencia individualizada ha superado el 1% de la cifra antes señalada. Todo ello según lo dispuesto en el artículo 57.8 de la Norma Foral de Régimen Económico y Presupuestario.

Transferencias de Créditos por Correcciones Técnicas:

**2009. urtea/ Año 2009**

(Eurotan) / (En €)

KAPITULUAK CAPÍTULOS	GEHIKUNTZAK AUMENTOS	GUTXIKUNTZAK DISMINUCIÓN	GARBIA NETO
<b>II</b>	7.387.013,26	4.814.100,56	2.572.912,70
<b>III</b>	63.851,90	63.851,90	0,00
<b>IV</b>	339.002,15	379.786,56	- 40.784,41
<b>ERAG. ARRUNTAZ GUZT. TOTAL OPERAC. CORRIENTES</b>	<b>7.789.867,31</b>	<b>5.257.739,02</b>	<b>2.532.128,29</b>
<b>VI</b>	2.225.086,35	6.475.214,64	- 4.250.128,29
<b>VII</b>	2.129.076,16	411.076,16	1.718.000,00
<b>VIII</b>	8.000,00	8.000,00	0,00
<b>KAPITAL ERAG. GUZTIRA TOTAL OPERAC. DE CAPITAL</b>	<b>4.362.162,51</b>	<b>6.894.290,80</b>	<b>- 2.532.128,29</b>
<b>GUZTIRA/ TOTAL</b>	<b>12.152.029,82</b>	<b>12.152.029,82</b>	<b>0,00</b>

**2008. urtea / Año 2008**

(Eurotan) / (En €)

KAPITULUAK CAPÍTULOS	GEHIKUNTZAK AUMENTOS	GUTXIKUNTZAK DISMINUCIÓN	GARBIA NETO
<b>II</b>	129.890,39	668.640,39	- 538.750,00
<b>IV</b>	1.254.813,04	741.063,04	513.750,00
<b>ERAG. ARRUNTAZ GUZT. TOTAL OPERAC. CORRIENTES</b>	<b>1.384.703,43</b>	<b>1.409.703,43</b>	<b>- 25.000,00</b>
<b>VI</b>	1.687.353,69	1.762.353,69	- 75.000,00
<b>VII</b>	100.000,00	0,00	100.000,00
<b>KAPITAL ERAG. GUZTIRA TOTAL OPERAC. DE CAPITAL</b>	<b>1.787.353,69</b>	<b>1.762.353,69</b>	<b>25.000,00</b>
<b>GUZTIRA/ TOTAL</b>	<b>3.172.057,12</b>	<b>3.172.057,12</b>	<b>0,00</b>

Zuzenketa teknikoak gastua gauzatzeko prozesuak eragin ditu, zenbait kasutan gastuak duen kontabilitate egozpena egokia ez dela ikusi eta dagokion zuzenketa teknikoa egin behar izan baita.

2009. urtean zuzenketa teknikoak 8.979.972,70 € gehituta dira 2008koekin alderatuta.

Las correcciones técnicas surgen como consecuencia del proceso de ejecución del gasto, en el cual en determinadas circunstancias se observa que la imputación contable del mismo que se va a realizar no es correcta, originando la consiguiente Corrección Técnica.

Las correcciones técnicas han aumentado en 8.979.972,70 € en 2009 respecto a 2008.



## 1.1 FUNTZIONAMENDU GASTUAK

Aurrekontu aldaketa hauek egin dira:

## 1.1 GASTOS DE FUNCIONAMIENTO

Las Modificaciones Presupuestarias han sido:

KAPITULUAK CAPÍTULOS	HASIERAKO AURREKONTUA PRESUPUESTO INICIAL	TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS	GAIKUNTZAK HABILITACIONES	AURREKONTU ALDATUA (Baliogabetzeagatik bajekin, baina sartuak kontuan hartu gabe) PRESUPUESTO MODIFICADO (Con bajas anulación y sin incorporados)	Aldak. (%) Haren aldean % Mod. /P.I
I	62.846.100,00	455.647,50	0,00	63.301.747,50	0,73
II	47.976.904,58	8.038.220,22	644.946,62	56.408.365,94	18,10
<b>GUZTIRA TOTAL</b>	<b>110.823.004,58</b>	<b>8.493.867,72</b>	<b>644.946,62</b>	<b>119.710.113,44</b>	<b>8,25</b>

### I. kapituluari ("Langileen ordainsariak")

455.647,50 € gehitu zaizkio kreditu transferentzien bidez.

Ondoko mugimenduek eragin dute gehikuntza:

El Capítulo I "Remuneraciones de Personal" se incrementa vía Transferencias de Crédito en 455.647,50 €

Este incremento se deriva de los siguientes movimientos:

	<u>Gehikuntza / Aumento</u>	<u>Gutxikuntza / Disminución</u>	<u>Garbia / Neto</u>
<b><i>Toki Administrazioaren eta Lurralde Oreka Saila / Dpto. de Administración Local y Equilibrio Territorial</i></b>			
• Programetako administrari laguntzaile 1 / 1 Auxiliar Administrativo de Programas	14.653,85		
• Programa berezietako erdi-mailako teknikaria eta toki erakundeetako ekonomia azterlanetako teknikaria / Técnico Medio de Programas Especiales y Técnico de Estudios Económicos de Entidades Locales del Plan Foral	70.954,63		
• Administrari 1 / 1 Administrativo	13.903,14		
<b><i>Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila / Dpto. Hacienda, Finanzas y Presupuestos</i></b>			
• Kudeaketako bi teknikari / 2 Técnico Gestión	38.999,52		
• 10 errenta likidatzaile / 10 Liquidadores de Renta	214.984,70		



	<u>Gehikuntza / Aumento</u>	<u>Gutxikuntza / Disminución</u>	<u>Garbia / Neto</u>
<b>Ingurumen Saila / Dpto. Medio Ambiente</b>			
• Ingurumeneko laguntzako teknikari 1 / 1 Técnico de Apoyo de Medio Ambiente	32.729,48		
<b>Euskara, Kultura eta Kirol Saila / Dpto. de Euskera, Cultura y Deportes</b>			
• Kultura Azpiegitura Zerbitzua: 4 laguntzaile eta teknikari bat / 4 Auxiliares y 1 Técnico Medio Servicio Infraestructura Cultural	69.422,18		
<b>I. KAPITULURA EGINDAKO TRANSFERENTZIAREN GUZTIZKOA. / TOTAL TRANSFERENCIAS DEPARTAMENTO A CAP. I</b>	<b>455.647,50</b>	<b>--</b>	<b>455.647,50</b>
I. kapituluko partiden arteko transferentziak / Transferencias entre partidas Cap. I	5.399.176,00		0,00
2009ko itxierako doikuntza / Ajuste Cierre 2009	712.517,42		0,00
<b>TRANSFERENTZIEN GUZTIZKOA / TOTAL TRANSFERENCIAS</b>	<b>6.567.340,92</b>	<b>6.111.693,42</b>	<b>455.647,50</b>

**II. kapitulua, "Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea"** izenekoak, kreditu transferentzien bitartez 8.038.220,22 euro igo da; hor, honakoak nabarmendu behar ditugu:

**- Diputatu Nagusiaren Saila**

Sail hon 803.736,52 euro egin du gora balio garbieran.

Hona hemen gehikuntzarik handiena izan duten transferentziak:

- Eraikin probintzialen zaintza eta segurtasuna / Vigilancia y Seguridad Edificios ..... 309.000,00
- Iragarki eta kanpainen publizitatea / Publicidad de Anuncios y Campañas ..... 182.328,36
- Legeldiaren plan estrategikoa / Plan Estratégico de Legislatura..... 144.500,00

Hona hemen gutxikuntza ekarri duten transferentzia nagusiak:

- Gerra zibilean desagertuen bilaketa / Sociedad de Estudios Aranzadi ..... 37.423,65

**- Berrikuntzaren eta Ekonomia Sustapenaren Saila**

Sail honetan 11.785,24 €ko gutxikuntza gertatu da kreditu transferentzien bidez; ez da izan aipatzeko moduko transferentziarik.

**El Capítulo II "Compra de Bienes Corrientes y Servicios"**, se incrementa vía Transferencia de Crédito en 8.038.220,22 €, donde cabe destacar:

**- Dpto. del Diputado General**

Se incrementa en términos netos en 803.736,52 €

Las transferencias de aumento más importantes son las siguientes:

Las transferencias de disminución más destacables:

**- Dpto. de Innovación y Promoción Económica**

Este Departamento disminuye vía transferencia de crédito 11.785,24 €, no existiendo transferencias a destacar.



**- Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaen Saila**

Transferentzien bidez izan den gehikuntza garbia 39.362,47 eurokoa izan da.

Hona hemen gehikuntza ekarri duten transferentzia nagusiak:

- Toki erakundeen garapen informatikoa / Desarrollo Informático de las EELL ..... 72.015,68
- Suhiltzaileen mantenimendu gastuak / Gastos de Mantenimiento de las UCEIS ..... 35.000,00

Hona hemen gutxikuntza ekarri duten transferentzia nagusiak:

- Toki erakundeen sustapena / Promoción de EELL ..... 109.078,17

**- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila**

Transferentzia bidez 1.595.326,56 €ko gehikuntza garbia gertatu da. Hauexek izan dira gehikuntza eragin duten transferentzia nagusiak:

- Agentzia betearazlearen premiamendu erreargua / Recargo Apremio de la Agencia Ejecutiva ..... 1.243.264,34
- Ogasuneko zerbitzuak: deszentralizatzeko gastuak / Gastos Descentralizados. Servicios Hacienda ..... 139.333,71

Ondoko hauetan, aldiz, gutxikuntza gertatu da:

- Prozesuak, aplikazioak eta egiturak berrantolatzea / Reorganización de Procesos, Aplicaciones y Estructuras. .... 140.000,00

**- Foru Administrazioaren Saila**

Sail honetan 1.656.172,31 euroko gehikuntza izan du transferentzien bidez.

Hauexek izan dira gehikuntza ekarri duten transferentziarik handienak:

- Informazio prosezuko ekipoen alokairua / Alquiler Equipos Proceso Información ..... 1.923.408,30
- Kanpoko zerbitzu informatikoak / Servicios Informáticos Externos ..... 117.287,51
- Energia elektrikoa / Energía Eléctrica ..... 311.725,37
- Plan informatikorako aholkularitza / Consultoría Apoyo Plan Informático ..... 381.065,00

Eta hauek, aldiz, gutxikuntza transferentzia handienak:

- Informatikako ekipoen mantentzea / Mantenimiento Equipos Informáticos ..... 1.147.400,90

**- Nekazaritza Saila**

Nekazaritza Sailean transferentzia bidez izandako gehikuntza garbia 1.442.307,44 eurokoa izan da;

**- Dpto. de Administración Local y Equilibrio Territorial**

El incremento neto vía transferencias es de 39.362,47 €

Las transferencias de aumento más significativas son:

Las transferencias de disminución más destacables:

**- Dpto. de Hacienda, Finanzas y Presupuestos**

El incremento neto vía transferencias es de 1.595.326,56 €, siendo las de aumento más importantes:

Entre las de disminución destaca:

**- Dpto. de Administración Foral**

El incremento de este Departamento mediante Transferencias asciende a 1.656.172,31 €

Siendo las transferencias de aumento más importantes:

y de disminución:

**- Dpto. de Agricultura**

El incremento neto vía transferencia del Departamento de Agricultura asciende a



hona hemen gehikuntzarik handiena izan duten partidak:

1.442.307,44 € siendo las partidas incrementadas más importantes:

- Landa bideak. euri jasa / Caminos Rurales. Lluvias Torrenciales ..... 1.538.844,07
- Kanpoko lan eta zerbitzuak / Trabajos y Servicios Exteriores ..... 140.582,92

Gutxikuntza handienak ondokoetan gertatu dira:

Los decrementos más significativos:

- Material bereziak eta funtzionamendua / Materiales Especiales Funcionamiento ..... 68.271,16
- Mendi publikoak: ebaluazioa eta kontrola / Evaluación y Control Montes Públicos ..... 97.730,63

#### **- Herrilan eta Garraio Saila**

Herrilan eta Garraio Sailean 1.098.394,90 euroko gehikuntza izan da transferentziaren bidez; hauexek izan dira gehien igo diren partidak:

#### **- Dpto. de Obras Públicas y Transportes**

El aumento vía transferencia del Departamento de Obras Públicas y Transportes es de 1.098.394,90 € siendo las partidas incrementadas más importantes:

- Errepideen kontserbazioa / Conservación de Carreteras ..... 278.228,05
- Neguko bidezaintza kontserbazioa / Conservación Vialidad Invernal ..... 440.670,75
- Energia elektrikoa / Energía Eléctrica ..... 146.533,11

Ez da gertatu gutxikuntza aipagarrik.

No existiendo disminuciones significativas

#### **- Ingurumen Saila**

Sail honetan 1.347.110,51 euroko gehikuntza izan da. Gehikuntza transferentzien artean ondokoak aipa ditzakegu:

#### **- Dpto. de Medio Ambiente**

Este Departamento se incrementa en 1.347.110,51 € entre las transferencias de aumento se pueden señalar:

- Arreta, jarraipen eta sustapen zerbitzua / Servicio de Atención, Seguimiento y Promoción ..... 151.885,76
- Urtegi-tako salbamendu zerbitzua / Servicio de Salvamento Embalses ..... 167.500,00
- Kanpoko zerbitzuak. 06/16 hondakin plana / Servicios Exteriores Plan Residuos 06/16 ..... 426.912,53

Gutxikuntzarik handiena honetan gertatu da:

El decremento más significativo es.

- Bereizteko ontziak erosteko kanpaina / Campaña Adquisición Recipientes de Separación ..... 105.761,73

#### **- Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

Sail honetan 85.352,91 euroko gutxikuntza gertatu da transferentzien bidez; hauexek izan dira handienak:

#### **- Dpto. de Euskera, Cultura y Deportes**

El decremento vía transferencia en este departamento asciende a 85.352,91 € pudiéndose destacar las siguientes disminuciones:

- Amarica proiektua / Proyecto Amarica ..... 48.241,85
- Txostenak / Informes Periciales ..... 56.430,10
- Kirol federazioak-Eskola kirola / Federaciones Deportivas-Deporte Escolar ..... 40.200,98
- Kanpo zerbitzuak / Servicios Exteriores ..... 45.214,62

Eta ondoko hauek gehikuntzarik handienak:

Y los siguientes incrementos:



- Herriz herriko kultura jarduerak / Itineración Actividades Culturales ..... 132.559,37
- Eskola garraioa / Transporte Escolar ..... 50.921,67
- Argitalpen bibliografikoak / Publicaciones Bibliográficas ..... 63.456,88

**- Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saila**  
Ez dago transferentziarik.

**- Dpto. de Política Social y Servicios Sociales**  
No existen transferencias.

**- Gazteriaren eta Gizarte Sustapenaren Saila**  
Gutxikuntza garbia izan du transferentzia bidez:  
17.758,16 €

**- Dpto. de Juventud y Promoción Social**  
La disminución neta vía transferencia asciende a  
17.758,16 €

Hauexek izan dira gehikuntza transferentziak:

Siendo las transferencias de aumento:

- Azterlanak, analisiak eta txostenak / Estudios, Análisis e Informes ..... 25.744,64
- Lankidetzarako plan zuzentzailearen jarraipena / Seguimiento Plan Director de Cooperación ..... 26.786,69
- Giza eskubideen zabalkuntza eta sustapena / Difusión y Promoción Derechos Humanos ..... 34.524,97

Eta hauek, aldiz, gutxikuntza transferentziak:

Y de disminución:

- Berdintasunaren arloko beste jarduketa batzuk / Otras Actividades en Materia de Igualdad ..... 25.556,19
- Inmigrazio arloko beste jarduerak / Otras Actuaciones en Materia de Inmigración ..... 30.709,61

**II. kapituluak** 644.946,62 euroko igoera izan du **kreditu gaikuntzari** esker. Kopuru horretatik, 579.981,20 euro diru sarrerei lotutako gastuei dagozkie (DLG). Hona hemen egin diren gaikuntzarik garrantzitsuenak:

**El Capítulo II** se ha incrementado vía **Habilitación de Crédito** en 644.946,62 €, de las cuales 579.981,20 € corresponden a Gastos con Financiación Afectada (G.F.A.). Las habilitaciones más importantes han sido las siguientes:

**- Ingurumen Saila**

**Dpto. de Medio Ambiente** ----- **579.981,20**

- Hiri Hondakinen Gaikako Bilketaren Kudeaketa (DLG) /  
Gestión Recogida Selectiva Residuos Urbanos (GFA) ..... 250.000,00
- 09/13 Araztegiak Mantentzeko Hitzarmena (DLG) /  
Convenio Depuradoras 2009-2013 (GFA) ..... 208.333,33

**- Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

**Dpto. de Euskera, Cultura y Deportes** ----- **59.965,42**

- Museotako Erakusketak /  
Exposiciones Museos ..... 59.965,42

**- Gazteriaren eta Gizarte Sustapenaren Saila**

**Dpto. de Juventud y Promoción Social** ----- **5.000,00**

- Giza Eskubideen Zabalkuntza eta Sustapena /  
Difusión y Promoción Derechos Humanos ..... 5.000,00



GUZTIRA / TOTAL: ..... 644.946,62

## 1.2 FINANTZA GASTUAK

"Korrituak" izeneko III. kapituluaren aurrekontuko aldaketan bidez txikitu da, % 1,77 txikitu ere; eta "Finantza pasiboen aldaketa" izeneko IX. kapituluaren ez da ezer aldatu. VIII. kapituluari dagokionez ("Finantza aktiboen aldaketa"), hasierako aurrekontua % 4,48 handitu da.

## 1.2 GASTOS FINANCIEROS

El Capítulo III "Intereses", se ha disminuido vía modificaciones presupuestarias un 1,77% y el Capítulo IX "Variación de Pasivos Financieros" no se modifica. En lo referente al Capítulo VIII "Variación Activos Financieros" se incrementa respecto al presupuesto inicial 4,48%.

KAPITULUAK CAPÍTULOS	HASIERAKO AURREKONTUA PRESUPUESTO INICIAL	TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS	GAIKUNTZAK HABILITACIONES	AURREKONTU ALDATUA PRESUPUESTO MODIFICADO	Aldak. (%) H.A.ren aldean %Mod/P. I.
<b>III</b>	10.417.732,35	-184.636,78	-	10.233.095,57	- 1,77
<b>IX</b>	5.555.555,52	-	-	5.555.555,52	0,00
<b>VIII</b>	14.848.906,26	665.983,03	-	15.514.889,29	4,48
<b>GUZTIRA TOTAL</b>	<b>30.822.194,13</b>	<b>481.346,25</b>	-	<b>31.303.540,38</b>	<b>1,56</b>

**III. kapituluari** 184.636,78 € gutxitu zaizkio transferentzia bidez.

Hauexek izan dira gehikuntza transferentziak:

- 2008ko foru obligazioen korrituak / Intereses Obligaciones Forales 2008 ..... 2.161.500,00
- 2008ko maileguren korrituak / Intereses Préstamos 2008 ..... 1.538.500,00

Eta hauek, aldiz, gutxikuntza transferentziak:

- 2008ko zorren korrituak / Intereses Endeudamiento 2008 ..... 3.700.000,00
- Sozietate publikoekin egindako hitzarmenen korrituak / Intereses Convenios Sociedades Públicas 184.636,78

**VIII. kapituluari** 665.983,03 euro gehitu zaizkio transferentzien bidez. Hauxe izan da gehikuntza ekarri duen transferentziarik handiena:

- Arabako Lanak. Galeren konpentsazioa / Arabako Lanak. Compensación de Pérdidas ..... 463.673,63

El **Capítulo III** se disminuye mediante transferencia 184.636,78 €

Siendo las transferencias de aumento:

Y de disminución:

Respecto al **Capítulo VIII**, ha aumentado mediante **Transferencias** por importe de 665.983,03 € La transferencia de aumento más significativa es:



**IX. kapituluak** ez da izan aldaketa nabarmenik.

Respecto al **Capítulo IX**, no ha experimentado cambios.

### 1.3 TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

**IV. kapituluak** ("Transferentzia eta dirulaguntza arruntak") % 0,08ko gutxikuntza izan da eta **VII. kapituluak** ("Kapital transferentziak eta dirulaguntzak") % 47,64koa.

### 1.3 TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES

En lo referente al **Capítulo IV** "Transferencias y Subvenciones Corrientes" han experimentado un decremento del 0,08% y al **Capítulo VII** "Transferencias y Subvenciones de Capital", han disminuido en 47,64%.

KAPITULUAK CAPÍTULOS	HASIERAKO AURREKONTUA PRESUPUESTO INICIAL	TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS	GAIKUNTZAK HABILITACIONES	AURREKONTU ALDATUA (Baliogabetzeagatiko bajekin, baina sartuak kontuan hartu gabe)  PRESUPUESTO MODIFICADO (Con bajas anulación y sin incorporados)	Aldak. (%) H.A.ren aldean  %Mod. /P.I.
<b>IV</b>	2.316.430.939,62	-2.420.966,83	443.533,67	2.134.453.506,46	-0,08
<b>VII</b>	107.434.380,06	-52.821.634,57	1.636.183,35	55.387.530,43	-47,64
<b>GUZTIRA TOTAL</b>	<b>2.423.865.319,68</b>	<b>-55.242.601,40</b>	<b>2.079.717,02</b>	<b>2.189.841.036,89</b>	<b>-2,19</b>

IV. kapitulutik 2.420.966,83 €kendu dira transferentzia bidez; hona nagusiak:

#### - *Diputatu Nagusiaren Saila*

27.901,90 €ko gutxikuntza garbia; hauexek izan dira garrantzitsuenak:

Gehikuntza transferentzia:

- UPV hitzarmena (Ekon. Hitzar. Ikerketa) / Convenio UPV Estudio Concierto Económico ..... 15.232,90

Gutxikuntza transferentzia:

- Valentin de Foronda institutoaren azterlana / Estudio Instituto Valentín de Foronda ..... 50.000,00

#### - *Berrikuntzaren eta Ekonomia Sustapenaren Saila*

El Capítulo IV, vía transferencia ha disminuido en 2.420.966,83 €, entre las cuales cabe destacar:

#### - *Dpto. de Diputado General*

Disminuye en términos netos en 27.901,90 €, pudiéndose destacar:

Transferencia de aumento:

Transferencia de disminución:

#### - *Dpto. de Innovación y Promoción Económica*



Sail honetan 20.000,00 euroko gutxikuntza garbia gertatu da; hona nagusiak:	Disminuye en términos netos en 20.000,00 € siendo los decrementos más importantes:
• AFaren enpresen leihatila bakarria / Ventanilla Única Empresarial DFA ..... 30.000,00	
• Sustapena: Turismoa Araban / Promoción Turismo en Álava ..... 34.593,68	
Hona hemen gehikuntzarik handienak:	Siendo los incrementos más importantes:
• Turismoa Irabazteko Xederik Gabeko Erakundea / Turismo en Entidades Sin Ánimo de Lucro .... 34.593,68	
<b>- Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saila</b>	<b>- Dpto. de Administración Local y Equilibrio Territorial</b>
Sail honen kopurua 229.954,80 €gutxitu da kreditu transferentziak direla eta. Gutxikuntzarik handienak ondoko hauek izan dira:	Este Departamento disminuye vía transferencia de crédito en 229.954,80 €siendo los decrementos más importantes:
• Lank hitzarmenak beste Adm batzuekin / Convenios Colaboración Otras Administración ..... 198.922,33	
• Parkeen kudeaketa: gastu arruntak / Gestión de Parques: Gastos Corrientes ..... 242.122,14	
Eta hona gehikuntzarik handiena:	y el incremento más significativo:
• Mirandako suhiltzaileen hitzarmena / Convenio Bomberos Miranda ..... 108.511,59	
<b>- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila</b>	<b>- Dpto. de Hacienda, Finanzas y Presupuestos</b>
Sail honen zenbatekotik 1.404.202,25 €kendu dira transferentzia bidez:	Este Departamento disminuye vía transferencia 1.404.202,25 €, correspondiendo a:
• Ekarpen orokorra / Aportación General ..... 15.567.779,75	
Hona gehikuntzarik handienak:	Siendo los incrementos más significativos:
• Ekarpen bereziak / Aportaciones Específicas ..... 13.877.561,70	
<b>- Foru Administrazioaren Saila</b>	<b>- Dpto. de Administración Foral</b>
141.247,06 €ko gutxikuntza gertatu da; hona:	La disminución asciende a 141.247,06 € correspondiendo a:
• Trebiñurekin lankidetzan aritzeko programa / Programa Colaboración con Treviño ..... 153.000,00	
<b>- Nekazaritza Saila</b>	<b>- Dpto. de Agricultura</b>
Sail honek 88.556,15 euro egin du gora transferentzien bidez; hona gutxikuntzarik handienak:	El aumento vía transferencia es de 88.556,15 € siendo las disminuciones mas importantes:
• Nekazaritzako jarduerari garaiz aurretik uztea / Cese Anticipado en la Actividad Agraria ..... 174.025,07	
• Laborantzarako laguntzak: uholdeak / Ayudas a Cultivos. Inundaciones ..... 94.354,57	
Eta hona gehikuntzarik handienak:	y los incrementos más significativos:
• Euri jasak. Landa bideak konpontzeko dirulaguntza /	



Caminos Rurales. Lluvias Torrenciales Subvenciones .....	105.041,08
• Minimis laguntza / Ayuda de Minimis .....	150.000,00
<b>- Herrilan eta Garraio Saila</b>	<b>- Dpto. de Obras Públicas y Transportes</b>
Sail honen kopurua 270.027,91 €gutxitu da transferentzia bidez; hauxe izan da handiena:	El decremento vía transferencias en este Departamento es de 270.027,91 € siendo las más importantes:
• Bidaiaari garraio publikoaren finantzaketa / Financiación Transporte Público Viajeros .....	277.224,43
• Unibertsitate garraiorako dirulaguntza / Subvención Transporte Universitario .....	106.302,90
• Ind poligon garraio publikorako dirul / Subvención Transporte Público Polígonos Industriales .....	104.786,00
<b>- Ingurumen Saila</b>	<b>- Dpto. de Medio Ambiente</b>
Sail honek 186.108,11 euro egin du behera kreditu transferentzien bidez; hona hemen gutxikuntzarik handienak:	Este Departamento disminuye vía transferencia de crédito 186.108,11 € siendo los decrementos más significativos:
• Ingum buruzko ekintzetarako dirul / Subvenciones Acciones Medioambientales .....	62.168,91
• Udaltalde 21 hitzarmena Añana / Convenio Udaltalde 21 Añana .....	35.670,00
<b>- Euskara, Kultura eta Kirol Saila</b>	<b>- Dpto. de Euskera, Cultura y Deportes</b>
Euskara, Kultura eta Kirol Sailean 200.461,98 euroko gutxikuntza izan da; transferentzia negatibo handienak ondoko hauek izan dira:	El decremento en el Departamento de Cultura, Juventud y Deportes es de 200.461,98 € siendo las transferencias negativas mas importantes:
• Irakaskuntzako liburuak dohain izateko dirulaguntza / Subvención Gratuidad Libros de Enseñanza .....	69.422,18
• Ikaskuntza eta Sentsibilizazioko programa / Programas Aprendizaje y Sensibilización .....	53.587,96
Eta hemen positiboak:	y las positivas:
• Añanako Kuadrilla. M.Portilla lantegi eskola / Cuadrilla de Añana. Escuela Taller M.Portilla .....	70.000,00
<b>- Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saila</b>	<b>- Dpto. de Política Social y Servicios Sociales</b>
130.000,00 euro gutxitu da transferentzia bidez.	Se disminuye vía transferencia en 130.000,00 €
<b>- Gazteriaren eta Gizarte Sustapenaren Saila</b>	<b>- Dpto. de Juventud y Promoción Social</b>
Sailaren aurrekontuan 100.381,03 €ko gehikuntza gertatu da transferentzien bidez; gehikuntzarik handiena honetan izan da:	El aumento del Departamento vía transferencias es de 100.381,03 € siendo el incremento más significativo:
• Transferentzia arrunta GFERi / Transferencia Corriente al IFJ.....	125.000,00
Gutxikuntza handienak:	y los decrementos:
• Lankidetzako laguntzetarako elkartasun funtsak / Fondos de Solidaridad Ayudas Cooperación .....	34.524,97



- Dirul lanaren arloko erakunde pribatuei / Subvenciones Entes Privadas Ámbito Laboral ..... 74.046,50

IV. kapituluari 443.533,67 euro gehitu zaizkio kreditu gaikuntza bidez. Kopuru horretatik 92.506,30 euro diru sarrerei lotutako gastuei (DLG) dagozkie; hauek dira gaikuntzarik garrantzitsuenak:

El Capítulo IV se ha incrementado vía habilitación de crédito 443.533,67 €, de los cuales 92.506,30 € corresponde a GFA, siendo estas habilitaciones siguientes las mas significativas:

- <b>Biltzar Nagusien Saila</b> <b>Dpto. de Juntas Generales</b> .....	<b>0,00</b>
- <b>Diputatu Nagusiaren Saila</b> <b>Dpto. del Diputado General</b> .....	<b>0,00</b>
- <b>Berrikuntzaren eta Ekonomia Sustapenaren Saila</b> <b>Dpto. de Innovación y Promoción Económica</b> .....	<b>0,00</b>
- <b>Toki Administrazioaren eta Lurralde Oreka Saila</b> <b>Dpto. de Administración Local y Equilibrio Territorial</b> .....	<b>187.904,89</b>
• Udalen partaidetza itundu gabeko zergetan / Participación Ayuntamientos Tributos no Concertados .....	187.904,89
- <b>Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila</b> <b>Dpto. Hacienda, Finanzas y Presupuestos</b> .....	<b>0,00</b>
- <b>Foru Administrazioaren Saila</b> <b>Dpto. de Administración Foral</b> .....	<b>0,00</b>
- <b>Nekazaritza Saila</b> <b>Dpto. de Agricultura</b> .....	<b>0,00</b>
- <b>Herrilan eta Garraio Saila</b> <b>Dpto. de Obras Públicas y Transportes</b> .....	<b>132.598,78</b>
• Gorbeiakoko parke komertzialeko garraio finantzaketa (56.173,30 DLG) / Financiación Transporte Parque Comercial Gorbeia (56.173,30 GFA) .....	82.793,90
• Miñako parke teknol garraio finantzaketa (36.333,00 DLG) / Financiación Transporte Parque Tecnológico Miñano (36.333,00 GFA) .....	49.804,88
- <b>Ingurumen Saila</b> <b>Dpto. de Medio Ambiente</b> .....	<b>0,00</b>



<b>- Euskara, Kultura eta Kirol Saila</b>		
<b>Dpto. de Euskera, Cultura y Deportes</b>	-----	<b>88.000,00</b>
• Hezkuntzako liburuak doan izateko dirulaguntza /		
Subvención Gratuidad Compra Libros Enseñanza	.....	88.000,00
 <b>- Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saila</b>		
<b>Dpto. de Política Social y Servicios Sociales</b>	-----	<b>0,00</b>
 <b>- Gazteriaren eta Gizarte Sustapenaren Saila</b>		
<b>Dpto. de Juventud y Promoción Social</b>	-----	<b>35.030,00</b>
• UAGA: Emakume, sasoiko lana eta giza eskubideak /		
UAGA: Mujer, Temporerismo y Derechos Humanos	.....	35.030,00
		-----
<b>GUZTIRA / TOTAL:</b>		<b>443.533,67</b>

VII. kapituluan, kopuruak 52.821.634,57 €ko gutxikuntza garbia izan du transferentzien eraginez.

Por lo que respecta al Capítulo VII, ha disminuido mediante transferencia en términos netos, en 52.821.634,57 €

**- Berrikuntza eta Ekonomia Sustapenaren Saila**

**- Dpto. de Innovación y Promoción Económica**

7. kapituluan ez da izan aldakuntzarik transferentzien eraginez.

El Capítulo 7 no sufre variación vía transferencias.

**- Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaen Saila**

**- Dpto. de Administración Local y Equilibrio Territorial**

Sail honetan, 7. kapituluan 51.889.196,31 €ko jaitsiera gertatu da transferentzien bidez. Hona gutxikuntza eragin duten transferentzia garrantzitsuenak:

En este Departamento el Capítulo 7 se decreta vía transferencias en 51.889.196,31 € destacando entre las de minoración:

• Obra eta Zerbitzuen Foru Plana / Plan Foral de Obras y Servicios	.....	41.155.661,45
• Inbertsio Plan Berezia / Plan Especial de Inversiones	.....	3.209.853,64
• Lurpeko Kanalizazioen Plan Berezia / Plan Especial Canalizaciones Subterráneas	.....	5.518.965,97
• Lurraldearen gasifikazioa / Gasificación del Territorio	.....	197.827,06
• Toki Erakundearen Inbertsioetarako Funtz Osagarria /		
Fondo Complementario Inversiones Entidades Locales	.....	2.915.655,53

Eta, hona, berriz, gehikuntza transferentzia nagusiak:

Y las transferencias de aumento.

• ARABARRI: eraikitze eta lurzorua erosteko laguntzak /		
Ayudas edificación y suelo ARABARRI	.....	175.000,00



• Auzo harremanen arloko ekimenak / Iniciativas Relaciones Vecinales .....	123.238,16
• Obra txikietarako laguntzak / Ayudas a Obras Menores .....	1.410.106,93
• LTD lurraldean zabaltzeko hitzarmena / Convenio Extensión TDT Territorio .....	650.000,00
<b>- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila</b>	<b>- Dpto. de Hacienda, Finanzas y Presupuestos</b>
7. kapituluan ez da izan aldakuntzarik transferentzien eraginez.	El Capítulo 7 no sufre variación vía transferencias.
<b>- Foru Administrazioaren Saila</b>	<b>- Dpto. de Administración Foral</b>
3.467,26 euro gutxiagotu da; hona:	Se ha disminuido en 3.467,26 €correspondiendo a:
• Hitzarmena: eguneko arreta zentroa, Aramaio / Convenio Centro Atención Diurna Aramaio .....	151.719,20
Gehikuntza ere izan da:	El aumento corresponde a:
• Trebiñuko Inbertsioen Programa / Programa Inversiones en Treviño .....	100.614,30
<b>- Nekazaritza Saila</b>	<b>- Dpto. de Agricultura</b>
192.045,50 euroko gehikuntza garbia izan da; hala ere, gehikuntza transferentzia batzuk aipatu behar dira:	El incremento neto es de 192.045,50 € siendo las transferencias de aumento a señalar:
• Haizeteak basoko berreskuratzea / Recuperación Forestal. Vendavales .....	185.486,10
